

Zergatik, Jamil?

Patxo Telleria

MARTXOA, 2015

Zergatik, Jamil?

Iluna.

Off-eko abotsa

Bigarren Brigadako agenteak, Jose Martinez Chamorro inspektore-buruaren agindupean, 8:45tan heldu ziren krimenaren tokira, biktimaren emaztearen deiarri erantzunez. Emazteak berak aurkitu zuen gorpua goizeko 8:30tan, ospitaletik bueltatu zenean. Emazteak ospitalean gau osoa eman zuela adierazi du.

Irudi audiobisuala. Txuri beltzeko argazkiak, iluna apurtzen, azkar agertzen eta desagertzen direnak, Off-eko abotsa entzuten den bitartean. Lehen-lehen planoan bala zauria gorputz batean; plano irekiago bat, ohean datzan gorpua batena. Bularra odoleztatua dauka.

Offeko Abotsa

Heriotza egun bereko 3:30 eta 4:30 bitartean gertatu bide zen. Biktima erabateko minusbaliotasuna zuen, atrofia muskular progresiboagatik. Horrexegatik ez da aurkitu gorpuan erresistenzia aztarnarik.

Iduri gehiago gero eta orokorragoak: hildakoaren ohea, elbarritua altzatzeko garabio eta gainerako tramankuluekin; plano irekiago batean, ondoan dagoen gurpildun aulkia; plano irekiago batean, etxeko saloia, anabasean, fondoan logelako atea ikusten delarik.

Offeko abotsa

Sarraila fortzaturik zegoen eta etxeko altzairuak nahas-mahasean aurkitu ziren eta kaxa fuertea bortxaturik... Agente batek gizon bat aurkitu zuen bi pisu beherago geldirik zegoen aszensoreko sabaian. Gizona konortegaberik zegoen.

Irudi gehiago: aszensoreko zuloa. Irudia gero eta gehiago zentratzen doa (zoom-a balitz lez) hondoan gizon baten gorputz geldia ikusi arte.

Offeko Abotsa

Gizona aszensoreko zulotik behera erori eta golpearekin galduko zuen konortea. Bere ondoan bederatzi milimetroko Sauer pistola semiautomatiko bat zegoen, isilgailuarekin. Biktima hiltzeko erabili zen pistola bera. Susmagariak, alkoholemia kontrolean positiboa eman du. Ez zeraman aldean batere dokumentaziorik, eta ezin izan zaio galdeketarik egin, kolpearen ondorioz, aldibaterako amnesia jasaten ari delako. Biktimaren emazteak susmagarria identifikatu du: Jamil Chauan, lau urtez biktimaren zaindaria izan zena, duela bi hilabete kaleratua izan zen arte.

Ilunean oraindik, sarraila baten zarata, ate bat irekitzean.

Espazioa argitzen da, eta gune ireki, zabal eta hutsa argitzen da.

Gizon bat (Jamil) sartzen da. Ate hotsa entzuten da, ixtean, eta gero sarraillarena.

Offeko abotsa

Susmagarria epaitegira eramatea erabaki da, baina lekualdatzea atzeratu da, segurtasun errefuertzoen zain. Izan ere, komisaldegiko atarian jende multzoa pilatzen hasi da, berria barreiatu ahala, krimenaren bortizkeria eta krudelkeriak suminduta.

Kanpotik ohiuak entzuten dira. Jamilek ohiuekin erantzuten die ohiuei.

Jamil

Gauto, gauto, hjaraimía! (Egin garrasi, kabroiak) Ána ma jaiafshi mánkow! Katsmaani? Ána ma jaiafshi mánkow! (Ez naiz zuen beldur. Aitzen? Ez naiz zuen beldur!) Ein garrasi! Benga, ein garrasi, putakumiak! Altuau, eztot entzuten eta! Ein garrasi eztarrixak urratu artian, astindu ukabilak, atara makilak eta aiztuak, nahiboze! Eztaukat bilurrik! Ia, altuau ein, eztot entzuten! (Erdiko atzamarra atereaz) Hartuixue hemendik!

Buelta ematen du, amorruez.

Jamil

Ez, itxaron. Ez alperrik galdu indarrak, hemen luzatuko naiz ta. Eztakit zenbat, ordubete, bi, hiru... Eta ertetzen naizenian, han ikusi nahi zaitxuet ondiok. Zuen amorruek apur bat gehixau aguantatzia nahiko neuke, nitaz aspertu eta beste zeozerren bila hasi baino lehen! Zuen arpegiak ikusi nahi ditxut! Nire arpegia ikusi deixuen nahi dot!! Beiratu ondo, irribarriakin ertengo naizelako. Irribarriakin, ostia! Eta zuen mutur putara esanez: "Eztot inor akatu!" Ni enaiz izan!! Enaiz izan!! Putakumiak!!

Bere amorrazioan, ez da konturatu gizon bat espazioan dagoela.

Ezezaguna

Harritzen zara garrasiengatik?
Elbarritu bat akatu duzu kupida gabe.
Moro hiltzaile bat zara.
Normala ohiukatzea.

Jamil

Jun zaitxe infernura. Ospa hemendik.

Ezezaguna
Biok kabitzen gara hemen.

Jamil
Bakarrik egongo nitzala esan die.

Ezezaguna
Hainbeste inporta dizu?

Jamil
Bai. Eztot inokin egon nahi. Bakarrik
itxiko nindutela esan die. Eztebe esan
beste atxilotuekin egongo nitzanik.

Ezezaguna
Ni ez naiz atxilotua.

Jamil
Nor zara?

Ezezaguna
Xabier.

Jamil
Ez jat zure izena inporta!

Xabier
Zeuk galdetu duzu.

Jamil
Ze ostia eitxen dozu hemen, atxilotuta
ezpazaure?

Xabier
Esaidazu zuk.

Jamil
Polizia zara, ezta?

Xabier
(Irriz)Ez.

Jamil
Ni zaintzeko bidali zaitxue, ez? Ezer
arrarorik ez eitxeko.

Xabier

Zer egin zenezake arrarorik?

Jamil

Ihes eitzen saiatu. Edo barrotietatik zintzilikatu.

Xabier

Suizidatzeko gogoia duzu?

Jamil

Ez ba, ze koño...!

Xabier

Zeuk aipatu duzu.

Jamil

Hori izaten da pasatzen dana. Laga bakian! Ospa hemendik!

Xabier

(pausa) Damututa zaude?

Jamil

Joder! Ez, ostia, eztaukat inungo damurik!! Memoria puta galdu dot, orduan eztot gogoratzen zetaz damutu biharko nitzan.

Xabier

Baina jakingo duzu gizon bat hil duzula.

Jamil

Joder... Nik eztot inor hil!

Xabier

Elbarritu bat, laguntza eskatzeko indarrik ere ez zeukan gizagaixo bat.

Jamil

Ni enaiz ba izan!!

Xabier

Eta orduan zer egiten zenuen andamioen azpian, lurrean botata, pistola oraindik bero batekin?

Jamil

Eztiazu ezer atarako. Alperrik zabiz, hobe dozu etorri zaren bidetik jutia.

Xabier

(pausa) Zergatik uste duzu errugabea zarela?

Jamil

Eztakitx nor naizen, eztakitx zelakua naizen. Baina nik ez neuke holakorik eingo. Inundik inora.

Xabier

Ez zenuke inor hilko?

Jamil

Paralitiko bat behintzat ez, joder.

Xabier

(gogor) Polbora arrastoak aurkitu dizkizute eskuan.

Jamil

(Bere artean) Eta polizia eztala esaten deu putakumiak.

Xabier

Esan dizut ba ez naizela.

Jamil

Nekatu ein naiz joku honekin.

Xabier

Hasi besterik ez du egin, Jamil.

Jamil

Nahikua, ostia! (Alkondarako lepotik helduta) Esaiazu nor zaran, esaiazu ze ostia eitxen dozun hemen! Pazientzia galdu dot ya!

Xabier

Jo egingo nauzu?

Jamil

Eztaukat galtzeko askorik.

Xabier

(Umeari, arin) Hobe duzu lasaitzea. Eta saiatu zaitez gogoratzen. Diotenez, oroimena berreskuratuko duzu piskanaka. Tira, begiratu aurpegira arretaz eta saiatu oroitzen.

Une batez Jamilek kasu egiten dio, baina laster uzten dio.

Jamil

Ez. Eztakitx. Ezaitxut ezautzen. Eztakit nor zaren. Jun hemendik.

Xabier-ek botxaz heltzen dio Jamil-i, eskuekin aurpegia oratu eta arretaz begiratzera behartzen du.

Xabier

(gogor-ez oso oldakor) Begiratuidazu! Begiratzeko esan dut!! Badakizu nor naizen? Begiratu ondo aurpegira, hiltzaile halakoa!! Zer, gogoratzen duzu jada? Gogoratzen duzu?

Jamil gogoratzen hasten da.

Bere oroitzapenak izututa geratzen da Jamil.

Jamil

Ez!!

Xabier

Ez, zer?

Jamil

Zu ez zara...

Xabier

Ni ez naiz, nor?

Jamil

Eztot holako kakatan sinisten.

Xabier
Zertan ez duzu sinisten?

Jamil
(Itxi bakian! Ospa!)

Xabier
(lasai) Lasai.

Jamil
Kolpiak burua nahastau ditx, hori da.
Zu ez zara...

Xabier
Ondo dakizu banaizela.

Jamil
Mamuak ezta esistitzen.

Xabier
(lasai) Horixe existitzen direla! Izena daukan guztia existitzen da. Honela edo bestela. Ni neu, adibidez, zeure buruan existitzen naiz. Entzun nahi ez duzun abotsa naiz, behin eta berriro ohikukatzen dizuna: zergatik?? Zergatik??

Jamil
Isildu!

Xabier
Zergatik, Jamil... miserablea, doilorra, zergatik akatu duzu odol hotzean bere ohean etzanda zegoen elbarritu errugabe bat? Zergatik akatu nauzu??

Jamil
Nahikoa da!

Xabier
Uste baino luzeagoa izango da hau.

Jamil

Itzi bakian, joder! Lagatzeko, kabroia!
Nik eztot inor hil, ostia.

Xabier

(Biolentziaz heldurik) Ez zaitut utziko, moro nazkagarria, zergatik egin duzun jakin arte.

Jamil

Laga, bestela...!

Xabier

(gora) Bestela zer? (behera) Berriro
hilko nauzu?

Jamil

Nik ez...!

Xabier

Bai! Zuk Bai!! Eta zerbait gogoratu
behar duzu. Pistolaren hotza eskuan.
Elbarritu errugabe baten aurpegia,
armaren kanoi-zuloa izuturik ikusten.
Tiro-hotsak. Polboraren usaina. Odola.
Tira! Gogoratu!

Beste oroitzapen bat datorkio burura.

Jamil

(Izuturik) Ene jainkoa!

Xabier

(goxo) Ondo, Jamil, pausu handia eman
duzu, azkenean ere gogoratu duzu zeu
izan zinela akatu ninduen urdekumea.
Oso harro nago zurekin.

Jamil

(Angustiaz) Joder, joder!

Xabier

(gogor) Ez, motel, ez da hondoa jotzeko
unea. Oraindik ez. Lan handia geratzen
zaigu.

Jamil-ek ez du erreakzionatzen.

Xabier

(Bortizki) Ea ba, zerria, esna zaitez!
Ez zaitut bakean utziko zergatik egin
zenuen aitortu arte. Tira! Zergatik?
Zergatik??

Jamil

Eztakitx!

Xabier-ek berriro heltzen dio.

Xabier

(suabe) Gogoratu behar duzu! Gogoratu
egin behar duzu! Ea, pentsa! Zer
datorkizu burura?

Zerbait gogoratzen du.

Jamil

Odola.

Xabier

Nire odola?

Jamil

Eztakitx. (...) Ez, niria. Odola
botatzen neban ahotik. Zeatik?

Xabier

Nirekin lan egin aurretik borroka
klandestinoetan aritzen zinen.

Jamil

Bai. Ona nitzan. Dirutza irabazten
neban apostuetan.

Xabier

Esku hezurrak apurtu zenituen arte.

Eta lan bila hasi zinen. Polizi-txosten
potoloa zenuen, baina nik, lerdo honek,
kontratatu zintudan.

Jamil

Errua zuria, fiatziarren.

Xabier

Arrazoi, errua nirea.

Lehengoetara bueltatu zinen, ezta?
Borrokan ez, baina apostuetan ibili
zintezke. Gaizki apostatuko zenuen,
diru mordoa galdu...

Jamil

Asunto txarra da jente horrekin
zorretan ibiltzia.

Xabier

Eta niri lapurtzea otu zitzaizun. Baina
gauzak okertu eta akatu ninduzun,
zerria.

Jamil

Badakizu, orduan. Oin ni jodiduta nau
eta zu hilda. Galtzen erten zara.
Suerte txarra. Ospa.

Xabier

(Ironiaz) (berarekiko) Nire zaindaria
lapurtu eta hiltzen nau. Itzela naiz
langileak kontratatzen!

Jamil

Ya enitzan zure zaindarixa. Kalera bota
ninduzun.

Xabier

Hara! Interesatzen zaizuna gogoratu
egiten duzu.

Jamil

Eurak esan diate. Beltzian pagatzen
zinazula ere jakin dot.

Xabier

Beltzean! Ez esan hori, morito, kutsu
arrazista dauka. Ezin nizun beste modu
batez ordaindu, ez nizulako kontraturik

egin. Esan dizute zenbat kobratzen zenuen?

Jamil

Ez.

Xabier

(Irriz) Kakazahar bat! Oso erreza neukan, ezin zenuen protestarik egin. Nire etxean ez bazen, non aurkituko zuen lanik poliziak fitxatutako inmigrante batek?

Jamil

Ni berton jaiotakua naiz.

Xabier

Okerragoa oraindik. Ez hemengoa eta ez hangoa ere. Kontentu egon behar zenuen zu bezelako bat kontratatzeagatik.

Jamil

Eta kontentu ere gero kale gorrira botatziarren?

Xabier

nipadios) Hori zure errua izan zen!. Ez duzu gogoratzen?

Beste zerbait gogoratzen du.

Jamil

Begi horrek, niri beira...

Xabier

Nire emaztea.

Argi aldaketa. Xabier orain gorpildun aulki batean dago. Berna eta besoak dagokien atrofiarekin.

Xabier

Jamil!

Jamil

Bai?

Xabier

Emaztea joan da dirua hartzera... eta
ehun euro falta ziren.

Jamil

Ehun euro falta?

Xabier

Nola egin diguzu hau, Jamil?

Jamil

Parkatu, baina nik eztot...

Xabier

Ez hartu ergeltzat!

Jamil

Benetan esateixut nik ez.....

Xabier

Bildu zure gauzak eta alde etxe
honetatik.

Jamil

Ez, mesedez.

Xabier

Ez dago bueltarik.

Jamil

Eztot dirurik hartu, benetan...

Xabier

Apustutan ibili zara, ez?

Jamil

Urtiak dia garito bat zapaltzen
eztotela.

Xabier

Gezurra!

Jamil

Mesedez, ez ein hau. Deskontaiazuz ehun euro horrek datorren hileko soldatatik.

Xabier

Ez didazu ba esan ez dituzula hartu?

Jamil

Ez ein hau. Eztaukat nora jun.

Xabier

Ospa etxe honetatik! Ospa!

Ohiko argia dator.

Xabier

Burumakur joan zinen etxetik, barkamena eskatuz bezela. Itxurakeria, mendekua planeatzen hasita zeunden jada. Hobe sentitzen zara orain bularrean tiroa jo eta gero?

Jamil

Eneukan zu hiltzeko asmorik. Lapurtzera sartu nitzan.

Xabier

Pistola batekin?

Jamil

Lapurtzera! Lapurtzera bakarrik!

Xabier

Eta orduan zergatik egin zenidan tiro?

Jamil

Eztakitx. Norbait sartzen etzungo zendun. Igarriko zendun ni nitzala. Salatuko ninduzula esango zendun.

Xabier

(mozten) Nolatan igarriko nuen zu zinela? (jakin gura) Ni ohean nengoen, etxea ezagutzen duzu, bazenekien nire gelan ez zegoela ezer baliozkorik. Ez zinen gelan sartuko. Ez zintudan ikusiko. Nola jakingo nuen zu zinela?

Jamil
Neure ibilkeraren soinuagatik?

Xabier
Mesedez! Sherlock Holmes banintz ere!

Jamil
Usainatik.

Xabier
Usaina?

Jamil
Bakoitzak bere usain propioa dauka.
Txakurrek ondo dakixie. Eta persona
batzuk ere bai.

Xabier
Ados, nire usaimena hobetzen zihoan,
beste guztia hondora zihoan heinean.
Eta bai, baliteke zure usaina
nabaritzea.

Jamil
Orduan badakizu: zorretan nenguan,
lapurtzera jun, baina ezagutu ninduzun
eta zu hiltzia beste erreimeixorik ez
neban izan. Dana argitxuta dau. Oin
laga bakian.

Xabier
Eta harrapakina?

Jamil
Zela?

Xabier
Hartu zenuen?

Jamil
Eztakitx zetaz...

Xabier
Kaxafuertean zegoena. Dirua, bitxiak
Lapurretaren arrazoia.

Eta? Non dago?

Jamil

Eztakitx.

Xabier

Kuriosoa. Poliziak ere ez daki. Ez al da harrigarria?

Jamil

Zer?

Xabier (gogor)

Poliziak kaxa fuertea irekita aurkitu zuen, eta hutsik. Baina zure arropetan ez zegoen ezer, ezta etxean edo andamioan, edo kalean ere.

Jamil

Argi berba eingoixut, higuinduta naualako ya: eztixut esango dirua nun dauan. Batetik eztakitxelako. Eta bestetik, inoiz berriro gogoratzen bot, eztiotelako inori esango.

Xabier

Hilda nago, zer ajola dizu?

Jamil

Hori esaten dot nik, ze inporta jatzu zuri? Emaztian etorkizunak arduratzen zaitxu? Maite zendun? Ba sentitzen dot, diruripe gelditxuko da. Eztakitx ze pasau zan diru putiak. Igual eninduan bakarrik. Igual baneukan konplize bat. Eta ni baino lehenau bajatu zan, eskilaretatik, diruakin. Ondo etorriko jat, dirua biharko dot abokatuari ordaintzeko.

Xabier barrez.

Jamil

Ze pasatzen jatzu?

Xabier

Barregarria zara, Jamil. Amorratzen nau, akatu nauzulako, baina barregurea ematen didazu.

Jamil

Hau absurdua da.

Xabier

(Irriz) Heriotza da absurdoa. Bueno, eta batzuen bizitza ere bai.

Jamil

Bueno, nahikua da! Ez ein barrerik. Honek eztauka grazia putarik!

Xabier-ek berriro heltzen dio, bortizki.

Xabier

(gogor) Arrazoi. Kito jolasak, Jamil! Jakin nahi duzu zergatik egin dudan barre? Inortxok ere ez duelako zurekin euro bakar bat ere partituko, ezer ez zenuelako lapurtu.

Jamil

Zer?

Xabier

Kaxafuerte hutsik zegoen aspalditik. Gaixotasunak gure ondasun guztiak xahutuak zituen.

Jamil

(Deskontzertaturik) Ezeuan dirurik??

Xabier

Estu bizi ginen, emaztearen soldatarekin, ozta ozta. (gogor) Eta zuk bazenekien. Ondotxo jakin ere.

Jamil

Orduan zergatik?... Eztauka zentzurik.

Xabier

(suabe) Euki behar du! Tira, esna
zaitez behingoagatik!

Jamil

Eztakitx, ostia! Zoroaldi bat izango
zan!

Xabier

Ez. Zuk ez duzu inoiz zoroaldirik izan.

Jamil

Baina gaba haretan sobran edan neban.
Enekien zer eitxen neban.

Xabier

(ironia) Bapateko eroaldia eta
alkoholaren eragina. Argudio bikaina
epaiketarako. Sorte pixka batekin
laister kartzelatik irten eta beste
gizajo baten bizitza izorratu ahal
izango duzu.

Jamil

Holan izan bihar izan zan! Derrepenteko
zoroaldia!

(Xabierrek zerbait gogoratzen du)

Xabier

Ez Jamil, ez. Sentitzen dut ilusioa
kentzea, baina epaiketan ez zara oso
urrun iritsiko eroaldiaren
aitzakiarekin.

Jamil

Zeatik ez?

Xabier

(gogor) Krimena aspaldi prestatzen hasi
zinelako, kabroia! Koartada bat atondu
zenuen.

Jamil

Zer?

Xabier

Afrikara alde egin zenuela sinestarazi zenigun. Zure postale bat heldu zitzaigun handik.

Jamil

Bai. Telefonoz deitxu nizuen, nire gurasuen herrian nenguala esaten, Morokon, Atlas Mendietan.

Xabier

Telefono deia, bai! Ehun euro haiengatik, damua sentitzen zenuela esan zenuen...

Jamil

...eta faltan botatzen zintxuedala.

Xabier

Zure "amonatxo maiteak" ere agur egin zigun telefonoan, bereber hizkuntzaz, ez genion ezer ulertu baina.

Jamil

Bi zentimo terdi ordaindu niozen atso bati berba eitzeko. Ezan berebera erez.

Xabier

Hemen jarraitzen zenuen, gure etxetik oso gertu.

Jamil

Pentsio zatar baten.

Xabier

Andamioetatik erori izan ez bazina, inork ez zukeen zure susmorik hartuko. Koartada ona prestatu zenuen. Ez da bapateko eroaldia izan, Jamil. (gogor) Aurrez prestaturikoa izan da, alebosiaz.

Jamil deskonzertaturik.

Xabier

(erreguka) Arrazoi bat egon behar du!
Pentsa! Pentsa, kabroia! Zer datorkizu
burura?

Oroitzapen gehiago.

Jamil

Zure emaztia. Bere begiradia gogoratzen
dot. Beti niri beira.

Xabier

Bigarren aldia da emaztea gogoratzen
duzuna. Zergatik?

Jamil?

Jamil

Bageunkan... harreman bat?

Xabier

Nola?

Jamil

Hori izan zan. Zure emaztia eta ni
maitaliak ginan.

Xabier

Ez ergelkeriarik esan. Maite ninduen.

Jamil

Izan leike, baina zuk eman ezin zenduna
bihar zeban.

Xabier

Jarraitu, jarraitu!

Jamil

Ezan gaztia, baina ondiok... emakume
ederra zan.

Oroitzapenak.

Hasieran sexuak baino ez zan, arina,
ezkutukua... Nire gelan sartzen zan eta
txortan eitxen gendun isil isilian.

Zaila da, baina eszitantia. Denporiakin sakontzen jun zan gure artekoa, elkarren biharra geunkan, baina hor zeunden zu, gure artian zeuan oztopua zinan, traban zeunden. Bion artian antolatu gendun. Zure emaztiatik izan zan. Biok bakarrik egon nahi gendulako hil zintxudan!!

Xabier barrez.

Zertaz egiten duzu barre?

Xabi

Ez zaitut mindu nahi, baina barregarria da pentsatzea emaztea eta zu...

Xabier barrez.

Jamil

Nik eztiot graziarik ikusten.

Xabier

Barka, baina abantailaz jokatzeko ari naiz. Emazteak bazituen... prejuizio etnikoak... Denbora zeraman zu kalera bota nahian. Maiteminduta dagoen emakume baten portaera iruditzen zaizu?

Jamil

Etxetik bota nahi nindun?

Xabier

Ez zen konpontzen zurekin. Fikzioa eta errealitatea nahastu dituzu. Benetakoa iruditu zaidana, ordea, zera da, zure desioa. (Burlaz) Hara, hara, emaztea gustoko zenuen, eh?

Jamil

Igual... eztakit. Igual.

Xabier

Horixe zenuela. Eta dudarik gabe larrutan egin zenuen berarekin, zure

ohean, ilunpean, isilean... eta bakar
bakarrik.

Xabier barrez. Jamil-ek pazientzia galtzen du.

Jamil

Ez barrerik ein.

Xabier

Barkatu baina oso barregarria zara
batzutan.

Jamil

Isildu behingoz!!

Xabier

(oso gogor) Ixildu zu!!!! Ez zaude niri
ohiukatzeko moduan. Gogoratu zeu zarela
akatu nauzuna!

Xabier-ek Jamil-i heltzen dio.

Jamil

Oroitzapen bat datorkio.

Tratu txarrak ematen zizkiazun!
Umillatu eitxen ninduzun.

Xabier

Umillatu! Hara... Jarraitu hortik.

Argi aldaketa.

Xabier, gurpildun aulkian, elbarritasun osoaz.

Xabier

(gogor) Jamil!! Jamil!!

Jamil

Banixe!

Xabier

Non arraio zeunden? Deika ari nintzen!!

Jamil

Parkatu, nik...

Xabier

Garbitu nazazu!

Jamil

Zela?

Xabier

Garbitzeko!

Jamil

Baina...

Xabier

Kaka egin dut gainean.

Jamil

Baina... zeatik...?

Xabier

Nola zergatik? Ze galdera txatxua da hori? Garbitu eta isildu.

Jamil

Baina zuk eztozu inoiz...

Xabier

Noizbait gertatu behar zuen lehenengo aldiz. Segi, zatoz garbitzera! zeren zai zaude? Nazka ematen dizu? Ba izorra zaitez. Horretarako pagatzen dizut. Aguantatzeko.

Jamil

Xabier, zeatik esaten diazu...?

Xabier-ek listua botatzen dio Jamil-i.

Xabier

Garbitzeko, ostia!

Ohiko argia.

Jamil

Putakume galanta zinan. (Madarikatua)

Xabier

(justifikatu nahian)

Ez hola jarri, elbarritu samindu bat nintzen, ulertu behar duzu.

Jamil

Nahitxa ein zendun, ez? Abisau ahal zendun. Gainian ein zendun ni fastidixatzeko.

Xabier

(gogoratzen ari da) Egia. Nazkagarria, baina egia.

Jamil

Disfrutatzen zendun, ezta? Gustatzen zitzazun abusatzia. Plazerra ematen zizun. Zelako suertia, koitxau baten bizitza zure kapritxuen menera eukitzia.

Xabier

(gogoratu du jada: ez dio sinesten) Beraz sadiko makur bat nintzen.

Jamil

Horreatik hil zintxudan! Hilketa justua izan zan. Ni nitzan biktima. Zela enaiz oin arte konturatu? Ni naiz krimen honetan biktimia!!

Xabier

Teoria polita, baina ez dizu ezertarako balio izango epaiketean. Baduzu frogarik? Tratu txar horien lekukorik dago?

Jamil

Oin ezin neike jakin.

Xabier berriro bortizki.

Xabier

(gogor) Ez orain ta ez inoiz. Ez dago lekukorik, tratu txarrik egon ez zelako. Joder, esnatu behingoz!

Jamil-ek erreakzionatzen du, Xabierrengana oldartuz.

Jamil

Ez ikutu! Berriz ere ikutzen banozu...!

Gelditzen da.

Oroitzapen berri bat.

Xabier

Aurreko batean ere, ni hiltzen saiatu zinen!

Jamil

Nola? Noiz?

Xabier

Ez dakit. Orain urtebete, edo. Labana gogoratzen dut, zure eskuan. Odola nire eztarritik irtetzen...

Jamil

Zu akatzen saiatu nintzen?

Xabier

Bai.

Jamil

Orain urtebete baino gehiago?

Xabier

Bai.

Jamil

Ta halan da guzti be, zuretzako lanean jarraitu neuan?

Xabier

(...) Ez, ez du zentzurik. Nahastuko nintzen.

Tira! Konzentratu gaitezen, itsumustuan ari gara, bueltaka, inora jo gabe.

Jamil

Nazkatu naiz ya asmakizunen joku honekin! Ze pasau zan baldin badakizu esaiazu behingoz, eta itxi nirekin jolastiari.

Xabier

Hasteko ez nago jolasean. Jarraitzeko, ezin dizut ezer esan. Hemen zeu zaude bakar bakarrik. Zeu eta zure oritzapenak. Eta bakar bakarrik aurkitu beharko duzu zergatik egin zenidan basakeria hau.

Jamil

Gorroto zintxudalako. Insultatzen, umillatzen ninduzulako.

Xabier

(suabe, umeari bezala)

Listua zergatik bota nizun aurpegira egun hartan?

Jamil

Putakume bat zinalako. Nik ze dakit!

Xabier

Zerbait egingo zenidan zuk, ez?

Oroitzapen gehiago.

Jamil

Pastillak! Gauza bat gogoratzen dot, hori baino lehenao pasau zana. Zu ondiok eskuekin manejatzen zinan.

Xabier

Eskuekin manejatu? Hori aspaldian izango zen.

Jamil

Pastilla pote bat zabaltzen zenbizen.

Argi aldaketa.

Xabier, aulkian, pastilla pote bat dorpeziaz irekitzen. Lortzen duenean, ahora eramaten ditu, nekez. Une horretan Jamil oldartzen zaio eta pastilla potea kendu.

Jamil

Zetan zabiz!! Zoratu ein zara ala??

Xabier

(arin) Eman hori.

Jamil

Ez! Ze demonio nahi dozu?

Xabier

(ixilune handia) Ta zuk zer uste duzu? Eman nire pastillak.

Jamil

Bat emangoizut, nahibozu. Bat bakarrik.

Xabier

Nor zarela uste duzu ba, nire medikua?

Jamil

Ez.

Xabier

Laguntzeko ordaintzen dizut, ez izorratzeko.

Jamil

Nire ustez oin laguntzen nabil, jauna.

Xabier

Ez egin hau, Jamil!

Jamil

Pastilak gordekoitxut, zuk eskuratu ezin ditxuzun leku baten.

Xabier

Ez!

Jamil

Eta bihar badozuz, eskatu niri, edo zure emaztiari.

Xabier

Eman pastilla horiek!

Jamil badoa.

Xabier

Jamil, zatoz hona, Jamil! (...) Alua!

Ohiko argia.

Jamil

Zure emaztiari kontau nion. Asko arduratu zan. Esan zian inoiz depresioren bat edo eukin zendula, baina inoiz ere ez puntu horretara heltzeko beste. Erne ibiltzeko eskatu zian, zuri begirik ez kentzeko, eta ondo gordetzeko medikamentuak eta zeure buruari kalte eitxeko erabili ahal zendun guztia.

Xabier

Ondo bete zenuen zure lana.

Jamil

Ein biharrekua ein neban.

Xabier

(Ironiaz) A ze bihotz zabala!

Jamil

Zu zinan nire lana. Zulora jun ezkerro, agur dirua.

Xabier barrez.

Xabier

(umorea)Aja! Erantzun ona! Egiak esan behar ditugu, bestela ez gara inora helduko.

Jamil

Jakingo banau nora heldu nahi dozun...

Xabier

(umeari) Ulertzeraino zergatik joan zinen nire etxera ni hiltzera. Ofizioko abokatu bat jarriko dizute, jakin beharko duzu zure defentsa nola enfokatu.

Jamil

Oin badirudi niri lagundu nahian zabizela!

Xabier

Arraroa iruditzen zaizu?

Jamil

Ze joku ostia da hau? Ze bilatzen zabiz? Nik hil zintxudan. Eztot sinisten lagundu nahi nozunik.

Xabier

(Bere artean) Moro burugogorra! Hemen zu zaude bakarrik, eta espabilatzen ez bazara, zelda zikin batean zahartuko zara. Egin esfortzu bat, Jamil!

Jamil

Ezin dot, kantzauta nau. Eztot ezer gehiau gogoratzen. Higoinduta nau guzti honekin. Higoinduta nau zurekin. Horreatik hil zintxudan, gaizki tratau ninduzulako. Hil zintxundan ni trapu zahar baten mouan erabiltzeko eskubidia zeunkalako, nitaz abusau ahal zendulako zigorrik jasotzeko arriskuripe. Hil zintxudan merezi zendulako. Eta kitxo. Amaitxu da jolasa.

Xabier

Hara ta hona zabilta noraezean, Jamil. Konturatu zara zenbat teoria asmatu duzun dagoeneko? Hil nauzu diruagatik, patuagatik, maitasunagatik, eromenagatik, gorrotoagatik eta justizia sozialagatik. Sei. Katua

banintz bizitza bakarra geratuko
litzaidake.

Xabier-en Irribarre ironikoa. Jamil-ek ere, segidan.

Jamil

Baina ez zara. Katua bazina, zure
buztana astinduko zenduke, eta zure
buztana ezta...

Biok irribarrez.

Xabier

Ona, oso ona!! Bai jauna! Zorrotza!.
Baina gorde ezazu umore pixka bat
kartzeletako dutxatan jaboneta erortzen
zaizunerako. Beharko duzu ta.

Txantxa tonu berberaz.

Jamil

Nik gitxienez bizirik jarraitzen dot.

Xabier

Hobe taladratua, inzineratua baino.

Biak barrez.

Jamil

Gustua hartukoiot igual.

Xabier

Agian neuk hartuko diot. Beti gustatu
zaizkit barbakoak.

Jamil

Ostia, egixa, haragi azala ondo erreta!

Xabier

Martxan elbarritu bat plantxan! Nola
nahi duzu jauna, asko eginda...?

Jamil

Puntuan, inporta ezpajatzu.

Xabier serio jartzen da.

Xabier

Ez dakit zergatik gauden barrez. Zure egoera beltza da.

Jamil

Beltza ez... magrebiarra!!

Xabier

Gauza bera, azken finean! Herri honetan bakarrik kristauok egiten dugu barre.

Jamil

Jaiungoikoaren Graziagatik.

Barrez berriro.

Jamil

Arrazoi dozu, eztauka zentzurik. Ze eitxen dou guk biok barrez?

Xabier

Txistea ematen du: akatu nauzu, baina a ze ondo pasa genuen!

Serio jartzen dira.

Ez, ez du zentzurik.

Jamil pentsakor.

Jamil

Edo bai... igual zentzua dauka.

Xabier

Zerk?

Jamil

Barre eitxen gendun. Zuk eta bixok, lagun onak ginan.

Xabier

Ea argitzen zaren, oraintxe bertan gorrotoa aipatu duzu ta.

Oroitzapenak.

Jamil

Barre eitxen gendun edozertaz. Zure gaixotasunaz, heriotzaz ere bai, ointxe bertan ein doun moduan.

Xabier

(Oroitzen) Bai, Jamil. Barre egiten genuen, sano. Norbaitek ikusi edo entzun izan ezkerro, inuxente pareo ginela pentsatuko zuen.

Jamil

Oso umore sen arrarua zeunkan.

Xabier

Ba zuk ere...

Biak irriz.

Xabier

Denek hitz egin zidaten zure aurka. Baita emazteak ere. Zure antezedenteekin, ez zinen ni zaintzeko pertsona egokia. Baina hasiera hasieratik jakin nuen. Lehenengo elkarrizketa hartan ikusi nuen zu eta ni onda berean genbiltzala.

Argi aldaketa.

Xabier aulkian. Paper bat dauka eskuan. Oraindik eskuak erabili ditzake.

Xabier

Ikustagun... (Irakurritz) Jamil Chauán.

Jamil

Jamil.

Xabier

Barkatu, Jamil. Marokoarra?

Jamil

Hemen Bertan jaio nitzan. Elgoibarren.

Xabier

Badakizu ze gaixotasuna dudan? Azaldu dizute?

Jamil

Ezinduta zaure.

Xabier

Paralisi mukular progresiboa. Orain lau urte aurkitu zidaten. Aurreko urtean hasi nintzen aulkia erabiltzen. Ez dakit noiz arte baliatu ahal izango ditudan eskuak. Medikuek diote ondo eusten ari naizela.

Jamil

Itxura ona ikusten dizut nik.

Xabier

(...)Lan esperientzia duzu?

Jamil

Zure moduko gaixuekin? Ez.

Xabier

Bestelako elbarrituekin?

Jamil

Paralitikuekin? Ez, hori ere ez.

Xabier

Ah. Lan egin duzu jende... nola esan... normala zaintzen.

Jamil

Ez.

Xabier

Ea ba... Nor zaindu duzu orduan?

Jamil

Oin arte nire burua zaintzen ibili naiz bakarrik. Eta nahikua lan euki dot.

Xabier

Eta zergatik dio hemen esperientzia handia duzula...

Jamil

Egixa esaten bot eztiazu
elkarrizketarik eingo.

Xabier

Baina orain egia esaten ari zara.

Jamil

Konturatu naiz, bai. Baina berandu zan
atzera eitzeko.

Xabier

(pausa) Zertan ibili zara orain arte?

Jamil

Betikuan, amamatxua zaintzen, mezkitan
errezatzen, eta asko ikasten, ganorazko
gizona eitzeko.

Biak elkarri begira eta laster barrez.

Xabier

Banekien gezurra esango zenuela.

Jamil

Zertarako galdetu dozu orduan?

Xabier

(Paperak begiratzen) Hemen diploma bat
dago, zigilu ta guzti, gaixo
dependienteak zaintzeko kurtso batena.
Hau ere faltsoa da?

Jamil

Ez. Hori egia da, benetan. Kurso hori
ein neban. Epailiak derrigortu nindun.

Xabier

Ze epaile?

Jamil

Joder! Ez zan ezer izan. Burruka txiki
bat. Garrantzi haundiripekua.

Xabier

Antezedenteak dituzu?

Jamil

Danok sartzen dou hankia noizbait.
Baina bizimodua zuzentzeko asmua
daukat, Ala, nire guraso eta zure
laguntziakin.

Biak elkarri begira eta laster barrez.

Xabier

Nire ustez, kabroi galanta eginda
zaude, Jamil.

Jamil

Herri honetan arin ikasten da hori.

Xabier

Badakizu zer suposatzen duen ni
bezalako bat zaintzeak?

Jamil

Suposatzen deu lana eta soldatia.

Xabier

Denetarako prest zaude? Prest zaude ni
garbitzeko, erabat ezinduta geratzen
naizenean?

Jamil

Zelan garbitzeko? Esan nahi dozu,
komunera jun ostian, eta kakazahar
guzti hori?

Xabier

Kakazahar guzti hori, bai.

Jamil

Joder zelako nazkia!

Xabier

Ba ohitu egin beharko zinateke.

Jamil

Seguru momentua heltzen danerako
kriston makinak asmatu debezela dan-
dana garbitzeko.

Xabier

Gauza bat... egiteko prest ote zauden jakin nahiko nuke.

Jamil

Esan.

Xabier

Nire gaixotasunak muskuloak atrofiatzen ditu. Haien artean, trakea eta esofagokoak. Horregatik askotan gertatzen zaigu eztarrian janaria trabatzea. Asko itota hiltzen dira. Azaldu dizute zer egin behar duzun?

Jamil

Joder. Bai. Baina eztaukat hori eitxeko asmorik.

Xabier

Baina...

Jamil

Ez, ez. Eztot holakorik eingo. Nireatik hil ahal zara itxota, baina nik eztot...

Xabier

Ea ulertu dudan, Jamil. Antezedenteak dituzu, ez duzu esperientziarik, ez didazu ipurdia garbituko, eta ez nauzu salbatuko itotzen banaiz. Laburpen ona egin dut?

Jamil

Bai.

Xabier

Eta ze demontretara etorri zara?

Jamil

Eztakitx. Ia suerte apur bat neukan...

Xabier

Eta emango zenidake arrazoi bat,
arrazoi bakar bat besterik ez bada, zu
aukeratzeko?

Jamil

Ba... Ez. Ezetz uste dot.

Xabier

(apur bat penatuta) Ondo da. Bukatu
dugu, beraz.

Jamil

Plazer bat. Politxa, etxia.

Irtetera doa, baina gelditu eta buelta ematen du.

Jamil

Bai. Badao gauza bat. Nirekin bazuaz,
inor ezta zurekin sartuko.

Xabier

Zergatik?

Jamil

Burrukalari izan naizelako. Eta oso
ona.

Xabier

Burrukalaria? Ez duzu itxurarik.

Jamil

Hori da onena, inork eztebela nire
krotxeta espero.

Xabier

Eta "pisu astuneko" batekin topatzen
bazara?.

Jamil

Kasu horretan...

Abaiada handiaz laban automatikoa atera eta irekitzen du.

Jamil

...laguntxo bat daukat.

Jamil labana eskuan duela dago irribarrez. Une batez Xabierrek beldurra sentitzen du. Baina gutxira, Jamil-ek labana gordetzen du berriro.

Jamil

Nirekin bazuaz, eztozu inungo erasorik eukiko.

Xabier

Jamil. Ez dut inoiz erasorik izan.

Jamil

Ah, ez? Mundu desberdinetan bizi gara.

Xabier

Ez dut bizkarzaina behar. Zaintzailea behar dut.

Jamil

Ulertu dot. Bueno... ia baten bat topatzen dozun.

Jamil irteten ari da.

Xabier

Zer da borrokalaria izan zaren kontu hori? Esan beldurrik gabe, edonola ere ez zaitut hartuko.

Jamil

Burrukak eitxen nitxun.

Xabier

Diruagatik?

Jamil

Ez, maitasunatik. (...) Apostuak. Batzutan diru mordua irabazten neban. Beste batzutan galdu. Orokorrian moldatzen nitzan.

Xabier

Zergatik utzi zenuen?

Jamil

Okerreko bidetik ninduala konturatu
nitzan eta...

Xabier

Jamil, ez zaitudala kontratatuko.

Jamil

Eskua fastidixau neban. Amaitxu zan
jaixa niretzat.

Xabier

Ah. Ongi, bukatu dugu.

Jamil irtetera doa, baina buelta ematen du.

Jamil

Ikusi nahi dozu bat?

Xabier

Bat zer?

Jamil

Burruka bat. Nirekin jun zeinke. Eztiue
edozeini sartzen izten.

Xabier

Ez zait interesatzen.

Jamil

Eztozu inoiz antzerakorik ikusiko.
Benetako burrukak dia, ez guanterik ez
legerik.

Xabier

Jendea hiltzen da?

Jamil

Ez! Oso gitxitan.

Xabier

A ze basakeria!

Jamil

Ondo, ezpozu nahi...

Jamil irteten ari da.

Xabier

Egon!

Jamil gelditzen da.

Xabier

Egia esan zeharo aspertuta bizi naiz.
Eta... beno... Denetarik ikusi behar
da.

Jamil

Bixar ordu honetan etorri eta eruango
zaitxut.

Xabier

(..kontratatuta zaude) Bihar arte,
Jamil.

Jamil

Bixar arte... eh... ondiok eztakit zure
izena.

Xabier

Xabier.

Jamil

Okey. Bihar arte, Jauna.

Jamil badoa.

Ohiko argia.

Xabier

(Irriz) A ze nazka, borroka hura! Gauak
eman nituen lorik egin gabe.

Jamil

Gizon makala!

Xabier

Bai zera! Ez nuen jasaten biolentzia.

Jamil

Egia, zu beste kirol bat nahiago
zenuen.

Xabier

(Irriz) Kirolean ni? Zer, katxondeoan?

Jamil-ek Xabier-en aulkia gidatzen du paseoan.

Jamil

(Irriz) Pasiatzia gustatzen zitzakun!

Xabier

(Irriz) Ah, bai! Eguzkia aurpegian sentitzea.

Jamil

Ibiltzia.

Xabier

Korrika egitea. Biok egiten genuen korrika zure anekin.

Argi aldaketa.

Xabier aulkian.

Xabier

Nora joan nahi duzu gaur, Jamil?

Jamil

Autobus geltokira.

Xabier

Zergatik?

Jamil

Takillak daudelako. Zu takilla baten sartu, giltzakin itxi eta putetara jungo nitzeke.

Biak barrez.

Xabier

Oso azkarra, bakeroa. Biok joan gintezke.

Jamil

Zu putetan, jauna?

Xabier

Bakan batzuek ni bezelako bezeroak
atenditzen dituzte.

Jamil

Santa hutsak, puta horrek.

Xabier

Bai, santu mirarigile bat izan beharko
zen, nire kirtena altzatzea lortuko
zuen.

Jamil

Santa Viagra Benedikatua.

Xabier

Santu hori ez da existitzen. Eliza
katolikoak emegalduak biziotik apartatu
ohi ditu.

Jamil

Nora jutia nahi dozu, jauna?

Xabier

Lorategi Botanikora.

Jamil

Ondiok goiz da. Mobilidadian ia ehuneko
ehuna galdu dozu ya, baina ondiok
eztozu pausua eman animalitik landare
izatera.

Xabier barrez.

Xabier

Ja! Hori bai ona! Ze astopotroa zaren,
Jamil! Nirekin lan egiteari uzten
dionean, gomendio gutun bat idatziko
dizut zirkuko pailazorako.

Jamil

Nire ustez zuk papel hobia eingo zeunke
zirkuan, feriako atrakzio moduan,
emakume bizardunakin. "Zuekin, Emakume

Bizarduna eta Paralitikoa
Kakapraketan!"

Xabier
(Dibertiturik) Ja!

Jamil
Portzierto, eztaukat gomendio gutunen
biharrik. Jakinarazteizut inoiz
eztotela lan hau itxiko.

Xabier

(Dibertiturik) Kaka zaharra, ez esan
hori!! Noizbait bukatu beharko da
zurekin egoteko tortura hau!

Jamil
Ez. Lehengo egunian lagun batek galdetu
zidan: "Berriz jaioko bazina, Don
Xabierrekin lan eingo zeunke, berriro?"
Eta nik erantzun: "Bai, berakin lan
eingo neuke berriro. Fastidixau
daitxela!"

Biak barrez.

Xabier
A ze putakumea!

Ixilune bat.

Xabier
Jamil, entzun: "Jamil oh shadir koi
almahirid bi".

Jamil
(Harrituta) Zer?

Xabier
Joder, ez duzu zure hizkuntza ulertzen?
"Jamil oh shadir koi almahirid bi".
"Jamil nire lagun marokoarra da".

Jamil

Bai, ulertu dizut, baina zela...?

Xabier

Ikasten hasi naiz.

Jamil

Zer?

Xabier

Hiztegia erosi dut. Eta gramatika.

Jamil

Zoratuta zaude!

Xabier

Denbora asko daukat sobran. Baina esaidazu, ondo esan dut?

Jamil

Errepikatu.

Xabier

"Jamil oh shadir koi almahirid bi".

Jamil

(Barrez) Beno...

Xabier

Beno, zer?

Jamil

Belarria sudurra baino okerragoa duzula oraindik.

Jamil barrez.

Xabier

Jaraimi del jra!

Jamil

(Irriz) Ez zaitez pasa!

Xabier

Pikutara joateko esan dizut, besterik ez.

Jamil

Hori gure hizkuntzaz oso irain gogorra da.

Xabier

Ah, bai! Orduan, berriro diotsut: Jaraimi del Jra!

Ixilunea. Jamil emozionatuta dago.

Jamil

Milesker, jauna.

Xabier

Pikutara botatzeagatik?

Jamil

Arrotz sentitu naz beti, han eta hemen. Lehenengo aldia da norbait... Kristoren poza ematen dit.

Xabier

Kristorena ez, Mahomarena.

Barre egiten dute.

Gelditzen dira. Jamil-ek paperezko zapi bat ateratzen du poltsikotik.

Isiltasuna. Xabier-ek serio begiratzen dio.

Xabier

Zertan zabilta?

Jamil

Zera apur bat jausi jatzu...

Jamil-ek xamurki Xabier-en ezpainetako listua sekatzan du zapiaz. Honek gozo begiratzen dio.

Xabier

Milesker.

Ohiko argia.

Jamil pentsakor.

Jamil
(Irriz) Xabier... Zu ta biok ez ginan
izango, kasualitatez...

Xabier
Zer?

Jamil
Joder... Badakizu, bikotea.

Biek barre.

Xabier
Nola ez! Nola ez! Armairutik atera
ninduzun. Nire emaztea utzi nuen, zure
hitzetan emakume puska eder eta
oraindik gaztea utzi nuen, nire
zaindari ganorabako eta dirubakoaren
besoetan erortzeko. (...)

Jamil
Edo ikustagun beste ikuspuntu batetik.
Hogeita gutxi urtetako morrosko exotiko
bat, gainean txiza egiten dauen
paralitiko batekin amoratzen da; azala
zimur eta sudurra okerra duen
paralitiko zantar batekin!

Biak barrez berriro.

Bapatean Xabier serioago jartzen da.

Xabier
Ez duzu benetan pentsatu, ez?

Jamil
Ez.

Xabier
Lasaiago geratzen naiz.

Jamil
Neu be. Ez zara nire tipua.

Xabier
Hobeto!

Jamil Xabier-en eztarriari begira.

Xabier

Zer?

Jamil

Zikatriza daukazu eztarrian.

Xabier-ek ezterrira eramaten du eskua. Zerbait gogoratzen du.

Jamil

Arrazoi zenuen.

Xabier

Zertan?

Xabier

Lehen gogoratu duzuna. Aspaldi izan zen, gau batean... zu eta biok bakarrik geunden etxean... Zugana joan nintzen labana batekin.

Xabier

Bai!! Gogor heldu ninduzun, ezin nuen mugitu, ezin nuen defendatu. Gogoan dut odola, nire eztarritik borborka irteten.

Jamil

Eta goguan daukazu zeatik?

Xabier

Saiatzen ari naiz. (...) Gau hartan hiltzeko zorian egon nintzen.

Argi aldaketa.

Xabier aulkian. Eztarria trabaturik dauka eta itotzen ari da. Jamil iristen da.

Jamil

Jauna! Jauna, zer dozu? (...) Ostia!

Bizkarrean kolpeak ematen dizkio.

Jamil

Ia, hartu arnasia! Hartu arnasia! (...)
Lagundu! Lagundu!

Xabier gero eta itoago.

Jamil

Jauna, mesedez, ez ein hau. Nik ezin
dot... ez ein hau, joder... tragau ein
biozu... ein esfortzua, tragau,
mesedez... mesedez!!

Berriro kolpatzen dio, alferrik.

Jamil

Ez, mesedez, Jauna, eutsi... Mesedez...
(...) Lagundu!! Lagundu!!

Xabier azkenetan dago. Jamil berari begira geratzen da,
pentsakor. Azkenean erabakitzen du.

Jamil

(Oso urduri) Ondo da... Ondo da, jauna.
Ein eingo dot. Eingo dot.

Jamilel bere labana automatikoa atera, ireki eta Xabierri
begira geratzen da, beldurrez.

Jamil

(Oso urduri) Banua... Lasai, jauna.
Banua.

Jamilek Xabier gogor heldu eta eztarrian zuloa egiteari
ekiten dio.

Ohiko argia.

Xabier

Bizia salbatu zenidan, gau hartan.

Jamil

Gero eta gitxiau ulertzen dot. Ondo
geunden. Barre eitxen gendun, joder.

Xabier

Ez beti. Batzutan deprimitzen nintzen.

Jamil
Ni konsolatzen ahalegintzen nitzan.

Jamil-ek eskuak pausatzen ditu Xabier-en lepo gainean.

Xabier
(pausa) Jamil.

Jamil
Zer?

Xabier
Ez nazazu horrela ikutu, katxondo
jartzen nauzu ta.

Biak barrez.

Jamil serio.

Jamil
Miresten zintxudan. Zure adoria
miresten neban, zure umoria.

Xabier
Ahal bezela eramaten saiatzen nintzen.

Jamil
Bizipoza zeunkan.

Xabier
Ez beti.

Jamil
Ez, klaro, egun txarrak ere bazeuden.

Xabier
Oso txarrak.

Oroitzapen gehiago.

Argi aldaketa.

Xabier aulkian.

Xabier
(Negarrez) Jamil!;Jamil!

Jamil
Zer dozu?

Xabier
Basoa!

Jamil
Bai, ikusten dot.

Xabier
Basoa!

Jamil
Bai, apurtu ein da. Ez arduratu, ti-ta baten batuko dot.

Xabier
Jausi egin zait.

Jamil
Bai.

Xabier
Jausi egin zait!

Jamil
Bai. Ez arduratu, baso gehiau daure. Eskobian bila nua.

Xabier
Ez duzu ulertzen!

Jamil
Zer, Jauna?

Xabier
Ezin ditut jada eskuak erabili!!

Ohiko argia.

Xabier
Oin urtebete pasatu zen hura. Gogorra izan zan niretzat.
Batez ere kontu bategatik. Detaile txiki bategatik. Gauza bat egitea

galerazten zidalako. Horregatik, basoarena gertatu eta gutxira, zurekin mintzatu nintzen.

Argi aldaketa.

Xabier aulkian. Jamil Xabier garbitzen.

Xabier

Gogoan duzu pastilla potea kendu zenidan egun hura?

Jamil

Bai.

Xabier

Makalaldi bat izan zen.

Jamil

Baina gaingitu ein zendun. Bizitzeko gogua berreskuratu zendun.

Xabier

Bai. Eta une ederrak pasatu ditut ordutik. Horregatik, nahiz eta egun hartan zurekin haserretu, orain eskerrak eman nahi dizkizut.

Jamil

Eztaukazu zetan eman.

Xabier

1. Bai, bai horixe, une ederrak bizi izan ditut. Eta beti pentsatu dut, inoiz iristen bazen eguna... inoiz konturatzen banintzen ez zuela merezi aurrera jarraitzeak, zuk - eta emazteak- bigilatu arren, moldatuko nintzela pastilla potea berriro eskuratzeko, eta denak kolpe batez irensteko.

Ixiltasuna.

Xabier

Baina detailtxo bat pasatu zitzaidan oharkabeen. Une hura iristean, jada ezingo nituela eskuak baliatu. (Irriz) Ze txorakeria, ez? A ze despiste tontoa! Beno ba, Jamil, iritsi da egun hura. Eta jada... ezin izango ditut pastilla horiek sekula hartu.

Jamil

Hobe hola. Ondo gaure.

Xabier

Baina ez dut jarraitu nahi.

Jamil

Ez esan hori.

Xabier

Hemendik aurrera geratzen zaidana ez dut gustoko. Ondo egon da orain arte, orain zaborraren minutuak geratzen zaizkit. Jamil, ekarri pastilla horiek, eta lagundu hartzen.

Jamil

Zoratu ein zara!

Xabier

Ez, senean nago gustiz.

Jamil

Ez. Depresia da. Lehenguan moduan. Pasauko jatzu. Gauzak baikor ikusiko ditxuzu berriz.

Xabier

Jada ez, jada ez. Zama besterik ez naiz zuentzat. Gero eta astunagoa. Ez dut horrela jarraitu nahi. Pastillak, mesedez!!

Jamil

Ez, jauna. Gainera, eskatzekotan emaztiari eskatu biharko zinozuzen, ez niri.

Xabier

Eskatu diot, Eskatu diot! baina berak ezin...! Emazteak ez luke... Zuk egitea behar dut.

Jamil

Ezin dot.

Xabier

Agindua da! Obeditzeko ordaintzen dizut.

Jamil badoa.

Xabier

Pastillak! Pastillak!!

Ohiko argia.

Jamil-en oroitzapena.

Jamil

Horreatik umillau ninduzun gero!
Pastillak ematea nahi zenuen.

Erakutsi nahi zinazun ze puntutaraino bihurtuko zinen zama niretzat.

Jamil

Jamil! Garbitu nazazu! Segi, zere zain zaude? Nazka ematen dizu? Ba izorra zaitez. Horretarako pagatzen dizut. Aguantatzeko.

Xabier

Ez, Jamil, ez! Ez zen mendekua izan. zintudan umilatu nahi izan. Laguntza eskatzen ari nintzen.

Jamil

Eta nik mezua jaso neban. Gaba asko pasau nitxun lorik einbe, zuk

eskatutakuari bueltak eta bueltak
ematen. Azkenian laguntzia erabaki
neban.

Xabier
Harreman ederra genuen.

Jamil
Ez, jauna, ez hain ederra!

Xabier
Zergatik diozu hori?

Jamil
Gezurretan zenbiltzalako. Eszena haura,
hain dramatikua, hain benetazkua,
antzerki hutsa izan zan! Gogoratzen
zara, ezta? Gogoratzen zara, putakumia?

Xabier
Bai. Gogoratzen hasi naiz.

Argi aldaketa.

Xabier aulkian.

Jamil
Jauna.

Xabier
Zer nahi duzu, Jamil?

Jamil
Gauza bat ekarri dizut.

Xabier
Ze gauza?

Jamil
Eztozu igartzen?

Xabier
Ah, Igarri behar dut? Ez dakit,
pistaren bat ez badidazu ematen...

Jamil-ek pastilla potea erakusten dio.

Xabier

Ah...!

Jamil

Eztakitx ondo eitxen dozun ala ez,
eztakitx, baina lagunduko zaitxutela
erabaki dot.

Xabier poteari begira.

Xabier

Aha...

Isilaldia.

Jamil

Eztozu ezer esan bihar?

Xabier

Ez ditut hartuko.

Jamil

Ez, klaro, eztizut esaten oin hartzeko,
bakarrik esplikau nahi dizut laguntzeko
prest nauala zuk eskatzen diazunian.

Xabier

Ez didazu ulertu. Ez ditut sekula
hartuko.

Jamil

Sekula ere ez?

Xabier

Hori esan dut.

Jamil

Baina...

Xabier

Ulertzen duzu "sekula" hitza, ez?

Jamil

Baina zuk esan ziazun...

Xabier

Eritziz aldatu naiz.

Jamil

Horrela, bapatean?

Xabier

Edo pixkanaka!!(...) Ze ajola dizu zuri ze belozitatean aldatu dudan eritzia? Depresio aldia pasatzen ari nintzen, baina gainditu egin dut.

Jamil

Eta ya eztozu nahi...?

Xabier

Joder, Jamil, batzuetan tontoa ematen duzu.

Jamil

Bale, bale, argi geratu da.

Xabier

Ea egia den.

Jamil

Hala ta guztiz ere, iritziz aldatzen bozu...

Xabier

Joder, Jamil! Zer da ulertzen ez duzuna?

Jamil

Ez, ez, argi dau. Eztozu nahi. Baina hemendik aurrera aldatzen bozu...

Xabier

Ea ba, zuk akatu nahi nauzu ala ze demontre?

Jamil

Zer esaten dozu?

Xabier

Katxondo jartzen zara jendea pozoitzeko ideiarekin? Herio Doktoorea zara?

Jamil

Ez.

Xabier

Ba bota zazu ditxosozko pastilla potea
komuneko zuloatik behera eta utzi
bakean, ostia!

Jamil

Nahi dozun mouan.

Jamil badoa.

Xabier

Edo irentsi itzazu zuk zeuk, alferrik
galtzeak pena ematen badizu...
Agoantatu behar dena!

Ohiko argia.

Isiltasuna.

Xabier

Zer? Zeri begira zaude? Esan zerbait,
ez?

Jamil

Zer nahi dozu esatia? Farsante huts bat
zinala? Nirekin jolasten ibili zinala?

Xabier

Hori pentsatzen duzu?

Jamil

Zer, bestela? Hiltzeko laguntza
eskatzen diazu, eta emateko prest
azaltzen naizenian, barre eitxeiazu
arpegira.

Xabier

Emazteagatik izan zen!

Jamil

Zelan, emaztea?

Xabier

Emazteagatik, bai, Jamil. Pentsatu!!
Zergatik ez nituen zure pastillak
onartu?

Jamil

Zure emaztea zelatan zegoen?

Xabier

Bai. Nire asmoak ezagutzen zituen, eta
erne zegoen. Laguntzeko prest zeundela
entzun zuen. Sutan jarri zen. Zu
etxetik bidaltzeko eskatu zidan.

Jamil

Nire mobimentu guztiak bijilatzen hasi
zan, gabaz ta egunez, deskantzuripe.

Xabier

Ni hilez gero, poliziagana joan eta
hiltzailea zeu zinela salatuko zuen. Ez
zintudan ataka horretan jarri nahi.
Horregatik asmatu genuen irtenbide hau.

Jamil

Zelan "asmatu genuen"? Zuk eta nik?

Xabier

Bai, Jamil, bai, zu eta biok! Moldatu
behar ginen emazteak susmorik har ez
zezan.

Jamil

Horreatik bota ninduzun etxetik.

Xabier

Bai, baina berak bazekien ez zintudala
bota nahi. Arrazoi sinesgarri bat
aurkitu behar genuen.

Jamil

Dirua lapurtzia.

Xabier

Ehun euro.

Jamil

Pensio batera jun nitzan, hemendik ez oso urrutira.

Xabier

Arma bat lortu zenuen.

Jamil

Sauer automatiko bat.

Xabier

Zure koartada prestatu zenuen: postale bat zure letrarekin, Marokotik bidalita...

Jamil

...eta telefono deia. Konferentzia bat Atlas Mendietatik.

Xabier

Telefono deia, hori da. Emazteak ez zuen susmatuko hemen zeundenik.

Jamil

Azkenian aukera egokixa heldu zan.

Xabier

Emaztea ospitalera joan zen, bere ama zaintzera.

Jamil

Gelako argia piztuta laga zendun. Hura zan adostutako seinalia.

Xabier

Gauetz etorriko zinen,

Jamil

atea bortsaz ireki,

Xabier

etxea ankazgora jarri

Jamil

eta kaxa fuertea irekita utzi,

lapurreta baten itxura emateko,

Xabier

eta azkenean... nire gelan sartu eta...

Xabier

Mila esker, Jamil.

Tiro hotsa entzuten da.

Isiltasuna.

Xabier

(abailduta) Hain erreza zen! Hain erreza! Ez zitzaidan burutik pasatu okertu zitekeenik. Andamio madarikatua...

Jamil hurbiltzen zaio konsolatu nahiean.

Jamil

Ia, Xabier...

Xabier

Ez nazazu kontsola! Ez ni kontsola! Ni orain ondo nago. Zu zara zuloan zaudena. Izorratu zaitut, Jamil, zure bizitza izorratu dut! Kabroi madarikatua naiz!

Jamil

Ezta zure errua izan.

Xabier

Bai, nire errua izan da!! Zure tokian jarri behar nintzen. Konturatu behar nintzen plana ez zela perfektoa, okertu litekeela. Eta orduan zu... Ez nuen horretan pentsatu. Ez nuen horretan pentsatu nahi izan. Erruduna naiz, nire bizitza zurea baino inportanteagoa zela pentsatu nuelako.

Berriro zaratak kanpotik.

Xabier

Entzun, entzuidazu, Jamil: ondo prestatu behar duzu zure defentsa. Kanpoko laguntza beharko duzu. Etzazu ofizioko abokatu bat onartu. Zure alde egiteko prest dagoen norbait bilatu behar duzu.

Jamil

Ze dirukin?

Xabier

(Urgentziaz) Hitz egin emaztearekin. Dena ondo azaltzen badiozu, zure alde jarriko da. Saiatu zaituz! Esaiozu beragatik ere egin dudala. Ez nuela nahi berak sufritzea. Maite dudala.

Eta epaiketari esan ni orain ondo nagoela zuri esker.

Jamil

Zeatik ez zatoz epaiketara, testigantzia ematera?

Jamil irriz. Xabier ere.

Xabier

Kode penala aztertu beharko dugu, ea hildakoen lekukotza onartzen duten.

Biak barrez.

Jamil

Xabier... Bildur naiz.

Xabier-ek Jamil besarkatzen du.

Xabier

(negarrez) Jamil!

Jamil

Baina ez nau damututa. Denporan atzera eingo baneu, berriz eingo neuke.

Atea irekitzen ari den zarraila hotsa entzuten da.

Xabier

Orain jende horren aurretik pasatu ahal
duzu, begirada garbiarekin. Orain
badakizu zergatik.

Jamil irtetera doa. Gelditu eta buelta ematen du.

Biak barrez eta negarrez batera.

Xabier

Betirarte, Jamil.

Jamil

Ila el abad, Xabier. (Betirarte,
Xabier)

Kanpoko jendearen ohiuak entzuten ditugu ozen.

Ez nau damututa.

AMAIERA